

**2008ko URRIAREN 2an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2008ko urriaren 2an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Iñigo Aginalde Lertxundi  
*Karlos Irazu Muñoa (20.50 orduetan azaltzen da)*  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
  - **2008ko irailaren 4an ospatutako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Parroki elizaren eraberritzeko lanak egiteko baimena eskaeraren onespena, hala bada.**
- 4. Parroki elizaren eraberritzeko lanak direla eta diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 5. 2008-2009 ikasturterako Larraulgo herritarrei kultur ekintzak eta euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala badagokio.**
- 6. Udalhitz 2008-2010 era atxikitzeak akordioaren onespena, hala bada.**
- 7. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2008ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko kuotaren ordainketa, hala bada.**
- 8. Tolosaldea Garatzen 2008 urteko ekarpenaren onespena, hala bada.**
- 9. Fakturak eta ordainketak.**
- 10. Beste batzuk.**
- 11. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADAGAKIO.**

- ▣ 2008 urteko irailaren 4ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

16/2008 Alkatetza Ebazpena, irailaren 30ekoa, Larraulgo Bake epaitegian berogailuen instalakuntza egiteko Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskaera egitea 2008ko ekainaren 25eko Justizia, lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren aginduan arautzen dituen dirulaguntzen babesean, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **PARROKI ELIZAREN ERABERRITZEKO LANAK EGITEKO BAIMENA ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik I. A. U. Larraulgo Erretoreak eginiko eskaera, non Parraoki Elizaren eraberritzeko lanak egiteko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2008ko irailaren 29an, Udal Aholkularia den E. E. B. arkitektuak eginiko txostenean dioena:

“ J. M. M. jaunak, Donostiako Gotzaindegiaren izenean, Larraulgo Elizaren teilatua eraberritzeko I. G. eta I. A. arkitektoek garatutako Egiteko Proiektu bisatua oinarritzko segurtasun eta osasun azterlanarekin batera aurkezten ditu. Hau dena azterturik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

San Esteban eliza, Larraulgo lur hiritargarriaren barruan dago.

Larraulgo araudiaren “D” dokumentuaren arabera, eta Euskal ondarearen inbentarioaren barruan, balio bereziko eraikina bezala katalogatua dago, oinarritzko kontserbazio eta B presuntzio arkeologiko batekin.

Aurkezten den dokumentuan teilatuaren eraberritzea proposatzen da, elizaren kanpo itxura eta bolumena mantendu egiten delarik. Teilatuaren maila % 35-a baino gutxiagokoa da.

Proiektuan, teila eta lata zaharrak kendu eta berriak jartzea proposatzen da. Gaur egun dagoen zuntz-zementuzko estalkia, teilaz osatutako beste batez aldatzea proposatzen da ere. Zuntz-zementuzko estalkiaren ateratzea, lan hauetan dabilen enpresa berezi batek egin beharko du.

Eliza perimetroko eustormetan hormigoizko zuntxo bat egin nahi da, egituraren zertzetan mentsula moduko batzuk eginik.

Euri uren teilatu hodiak kobrezkoak proposatzen dira.

Eraikinen kanpo itxura markatzen duen araudia, "B" dokumentuaren ordenantzetan azaltzen da, bereziki 25º eta 37º artikuluetan.

### **Artículo 25.-Cubiertas**

Las construcciones se deberán resolver con una única cubierta a dos, tres o cuatro aguas.

**La pendiente máxima de la cubierta será del 35%.** La altura máxima de la cubierta vendrá determinada por la unión de las líneas inclinadas que arrancan de los aleros de dos fachadas opuestas.

El vuelo máximo del alero respecto de cualquier fachada será de 1,00 mt, exceptuando las fachadas principales en las que se podrá llegar hasta 1,20mt.

**En la rehabilitación de los edificios existentes, no se podrán realizar obras que modifiquen la disposición y forma de las cubiertas actuales.**

### **Artículo 37.-Materiales a emplear en los edificios**

Los materiales a emplear en las nuevas construcciones, o reforma de las edificaciones existentes serán los tradicionales en el municipio:

-Fachadas: Se utilizará la piedra o el cerramiento de ladrillo o bloque raseado exteriormente y pintado. No se admitirá el ladrillo cara-vista o chapeos con materiales cerámicos, vítreos o mármoles en una proporción superior al 30% de la superficie total de fachada. Se podrá utilizar en algunos elementos de fachada los bloques de hormigón de aspecto pétreo siempre que en la composición de la fachada se respete el aspecto tradicional del medio rural.

-Cubiertas: Se terminará con teja cerámica en su color natural o teja de hormigón de color y textura similares a la cerámica. Se prohíbe la utilización de materiales

como las placas de fibrocemento, asfálticos, pizarras, chapas metálicas, etc. En elementos de pequeña superficie (miradores, vuelos) podrá utilizarse materiales nobles como el cobre para la cubrición de los mismos.

-Carpintería: La carpintería exterior será de madera natural o pintada en tonos oscuros preferentemente. Se admitirá la utilización de carpinterías de otros materiales (PVC, carpintería metálica) pintada o lacada en colores apropiados.

-Antepechos, barandillas: Serán siempre calados tanto de madera como metálicos, nunca de fábrica. Tampoco se utilizarán otros materiales como plásticos en paneles, vidrio, etc.

Araudia eta egin beharreko lanak ikusita, proiektuan azaltzen diren materialak egokiak dira. Estrukturaren konponketak ere ez du teiltuaren itxura aldatzen.

Beraz, teiltua eraberritzearen lanak aurreko artikuluetara egokitzen direnez, udal baimena ematea egokia iruditzen zait.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I. A. U. Larraulgo Erretoreak eginiko eskaera, hau da, Parroki elizaren eraberritzeko lanen obra bainena eskaera onestea, betiere Udal Aholkulari Teknikoa den E.E. A. eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen baditu eta I. G. eta I. A. arkitektoek garatutako Egiteko Proiektua betetzen bada, zeina Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2007ko urriaren 19an bisatua izan zena.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapenetik salbuetsia izatea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri intesdunari ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **PARROKI ELIZAREN ERABERRITZEKO LANAK DIRELA ETA DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik Parroki Elizaren eraberritzeko lanak direla eta, lan hauek suposatzen duten gastu osoaren % 80<sup>a</sup> Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eliz barrutiaren finantzaketarekin aurre egingo da, Larraulgo Udalarari diru-laguntza eskaera eginik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

## ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I. A. Larraulgo Erretoreak eginiko Parroki elizaren eraberritze lanak direla eta diru-laguntza eskaera ukatu, Udal Aurrekontuetan ez dagoelako aurrikusirik obra horretarako diru-laguntzarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

**2008-2009 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI KULTUR EKINTZAK ETA EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2008-2009 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat kultur ekintzak eta euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Ikusirik aurreko urtean berri eman zela ondorengo urteetan Udalerritik kanpo egiten ziren Kultur ekintzak burutzeko dirulaguntzak kentzen hasiko zirela, Larraulgo Udalak bertan gauzatzen diren ekintza extra kulturalak diruz laguntzen dituelako, ezinezkoa egiten zaiolarik Udalari guzti hauek diruz lagundu.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- 2008-2009 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzak euskara ikastaroak burutzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENA.-2008-2009 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerritik kanpo burutzen dituzten Kultur ekintzetako dirulaguntzak kentzea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**UDALHITZ 2008-2010 era ATXIKITZEKO AKORDIOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenen ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioako Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. Artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkarteei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkariak bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELek sindikatuen bitartekariekiko negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta Tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du negoziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira.

Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak sinatu dira honakoen artean: EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipenak gauzatu daitezten.

Bestalde, aipatu artikuluen 8. Artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta Akordioa gainditzen badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.

Aurreko hori guztia kontuan, Udalbatza honek, aho batez, honako akordioak harutu ditu:

LEHENA: Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuetaordezkarien artean.

BIGARRENA: Akordio hauek jakinarzte EUDELi, Langileen Batzordeari, Enpresako Batzordeari, Sindikatu Atalei eta udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**

**AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2008ko 3. Eta 4. HIRUHILABETEKO KUOTAREN ORDAINKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2008ko irailaren 22an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2008 ekitaldiko 3 eta 4. Hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 14.382,94 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 14.382,94 eurotako ekarpena burutzea 2008 ekitaldiko 3 eta 4. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 14.382,94 eurotako gastua onartzea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**TOLOSALDEA GARATZENI 2008 URTEKO EKARPENAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek bidalitako idatzia, non 2008ko urtarrilaren 28ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten den Larraulgo Udalak Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena, guztira 4.327 euro direlarik. Lehen zatiaren ordainketa 2008ko martxoaren 30ean egin zen, bigarren zatiaren ordainketa egin beharko delarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Tolosaldea Garatzeni urteko ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa onartzea, bere zenbatekoa 2.163,50 euro direlarik.

BIGARRENA: 2.163,50 euroko gastua onartzea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**

**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

MAIZ ZURGINDEGIA	610,01
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	772,58
GIPUZKOAKO URAK	2.886,38
GIPUZKOAKO URAK	6.107,00
EINBER	431,40
PAPERTXULO S.L.	30,19
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	75,26
CARPINTERIA ANDOLA	24,13
EDUARDO AIZPURUA	11,90
URLAN	34,80
SASMAK	57,16
ARRATE IRRATIA	208,80
TELEFONICA	77,78
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	88,69
TELEFONICA	26,51
UROLA	177,40
AMONARRIZ ITURGINTZA	1.797,05
ARIZTIMUÑO	57,25
EUSKALTEL	97,73
ZELAI	34,80
REPSOLGAS	6,97
REPSOLGAS	73,80
IBERDROLA	146,72
ARGITU ASESORES	105,68

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

#### ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **13.956,2** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

#### **HAMARGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

**10.1. EUSKO JAURLARITZAKO HERRI ADMINISTRAZIOETAN  
HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARIAK IGORRITAKO  
IDATZIAREN BERRI EMATEA**

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendariak igorri duen intzidentziaren 2. Jakinarazpena, non dioen, jaso dutela 364155 intzidentzia-zenbakia duen keaxaren inguruan Larraulgo Udalbatzak 2008ko ekainaren 5ean hartutako erabakia, jakinaraziz erabaki horren berri herritarrari eman diotela. Eta intzidentziaren 1. Jakinarazpenari ez zaiolako erantzunik eman bigarrenko jakinarazpena igortzen dute.

Ikusirik aurreko intzidentzian bezalaxe ELEBIDEK Larraulgo Udalari bi gomendio egiten dizkiola, ondorengoak izanik:

- Jarraitu, bada, euskaraz lanean, baina itzuli gaztelaniara herritar horiei eman beharreko komunikazioak.
- Udalbatzak hartutako erabakia aldatzea, euskararen legeak ezartzen duena onartuz, Larraulgo biztanleen eskubideak bermatuak izan daitezten.

Gaia azterturik, Elebidek eginiko gomendioak artxibatzeko erabakia bozkatu egiten da, ondorengo delarik emaitza:

- Aldeko botuak: 4
- Kontrako botuak: 0
- Abstentzioak: 1

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, Elebidek eginiko gomendioak jasotzen dituen intzidentziaren 2. jakinarazpena artxibatzeko erabakia hartzen du.

## **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkeztu.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

